

ELKARRIZKETATZAILEA: AMAIA NEGRO ITURREGI

ELKARRIZKETATUA: MAITE LASA

ELKARRIZKETA DATA: 14/07/2010

LEKUA: ZEANURI

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA: 00:47:25

MINUTUEN ARABERA TRANSKRIPZIOA

00:00:00 Aurkezpena

00:01:23 Txikitan eskolara joaten ziren eta buelautakoan soloko lanak egiten zituzten amarekin, ura ekarri, behiak zaindu...

00:02:30 Eskola 14 urtera arte egon zen. Zortzi ahizpa-neba ziren, lau mutil eta lau neska, bera laugarrena.

00:03:27 Aita artzaina zen. Udaberrian eta neguan behean egoten zen ardiekin eta udan Arraba-ko txabolan (Gorbean). Ama baserrian egoten zen umeekin eta soloan

00:03:58 Bera neskame egon zen urtebete eta gero baserrian amarekin. Neguan josten ikasten zuen eta udan baserriko lanetan aritzen zen

00:04:31 Hamalau urterekin gurasoek kodeina bat oparitu zioten

00:05:00 Hogeitabost urterekin ezkondu zen, eta geroztik uda guztietan baserrian egon da gurasoei laguntzen. 21 urterekin Arraban zegoen refugio baten egon zen lanean.

00:06:35 Gero kalean bizi izan da eta alaba bat dauka. Asteburuetan baserrira joaten zen lanera

00:07:26 Hamalau urterekin josten ikasten Villharo-ra. Udan soloko beharra.

00:08:21 Ezkondu eta Laudiora bizitzera. Orain 6 urte bueltatu ziren Zeanurira. Orain neba laguntzen joaten dira baserrira.

AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

00:09:10 Neba gazteena izan da baserrian geratu dena. Aitak nahi zuen bere seme bat artzaina izatea. Bai neba, aita ta aititea izan dira artzainak. Nebaren seme-alabak ez dute familiako ohiturarekin segitu nahi. Gogorra da artzain lana

00:11:25 Baserrian, gutxira arte errentadoreak izan dira. 500 urteko baserria da eurena, eta orain dela 10-15 urte erosi zuten dena.

00:13:19 Hiru bizitzako baserria zen. Bertan beste familiar batzuk bizitzen ziren, bat aititearen anaia, baserriaren ugazaba zena.

00:16:00 Ama da baserrian geratu zena, ziur aski gurasoek esanda etxean gelditzeko. 10 ahizpa-neba izan ziren eta besteak neskame eta morroi atera ziren. Aitite eta amama, amarekin egon ziren hil arte.

00:18:26 Aitari ama hil zizaion gazte. Arreba ezkondu zen propietade batera eta aititea eta aita, soltero zegoela, berarekin bizitzera joan ziren baserri berrita. Aititea han hil zen.

00:22:38 Garia, artoa, patata ekoiztu egiten zen etxerako.

00:23:52 Ez zeukaten ez biderik, ez argirik, ez urik, baina pozik bizitzen ziren. Hainbeste ordubeteko bidea izaten zen Zeanurira.

00:26:00 Aitak gaztak egiten zituen eta saldu. Baita ardiak, bildotsak, oilaskoak, arraultzak, txahalak saltzen zituzten. Ahuntzak be bazituzten. Neba-ahizpak kanpoan lan egin eta etxerako diruaren parte bat lagatzen zuten.

00:28:00 Gerra garaian gurasoek baserrietik atera behar izan ziren abere eta danarekin. Alonsotegira joan ziren, handik Zamudiora. Baserrira bueltatu orduko, dena hondatuta eta ohostuta zegoen.

00:29:34 Eskolan erderaz egin behar zuten eta ez zekiten ezta zer zen hori, erdara. Ez zekiten nola hitz egin

00:31:00 Gaztetan Areatza eta Artea-ko erromerietara joaten ziren, baina hortik kanpo, inora. Ilundu baino lehen, kanpaiak jo orduko egon behar ziren etxean.

00:32:06 Guztira hamar neba-ahizpa ziren. Bi gazte hil ziren.

AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

00:33:05 Neba-ahizpak besteak atera ziren baseritik. Batzuk lantegira, gehienak neskame-morrori atera ziren. Nebetatik, hiruk soldaduzka Afrikan egin zuten

00:34:47 Mutilak kanpoan zirenenan, aita egoten zen laguntzen baserrian, edo egoten zena. Bere amak baserriko lan guztiak egiten zituen, amak gizonen moduan egiten zuen lana.

00:36:33 Bera beti baserrian egon da laguntzen. Bai lehen eta bai orain.

00:37:44 Gustatu zaio beti, besteak ez dira joaten horrenbeste. Horretara behartuta eta ohituta egon denez, gustoa hartu dio.

00:40:08 Emakumeak eta gizonak baserrian antzera egin dute lan. Lehen emakumeak gizonen moduan egiten zuten lan. Andrea goizetan lan gehiago zuen etxe barruko antolaketan, baina arratsaldero kanpoan egoten zen soloan

00:41:38 Gurasoak baserrian batez be neba eta koinata zainduta geratu dira.

00:43:44 Beste neba eta ahizpak orain be etorri izaten dira baserrira

00:45:20 Bera baserritarra sentitzen da.

00:47:25 Grabazioaren amaiera